



Bertsozale Elkartearen Berripapera

# Bertsozalea

www.bertsozale.eus

ESPAÑA	FRANKEO
	ITUNDUA
	FRANQUEO
	CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

2016ko AZAROA - 178. zenbakia

## Hilaren 12an jokatuko da Baionan Xilabako finala

**Irailaren 24an abiatu zen Donibane Lohizunen Xiberoa, Lapurdi eta Baxenabarreko bosgarren bertsolari xapelketa. Sei saio jokatu ostean, finalaren txanda ailegatu da. Azaroaren 12an izango da Baionan, 17:00etan eta bertan sei bertsolarik hartuko dute parte. Bitartean, Bizkaiko txapelketan finalaurrekoei helduko diegu.**

Azken asteotan jokatu dituzten lau finalaurrekoetan ateratako baturatik atera dira Xilabako sei bertsolari finalistak. Hauek izango dira azaroaren 12an Baionako Lauga gelan oholtzara igoko diren sei bertsolariak: Sustrai Colina, Amets Arzallus, Odei Barroso, Miren Artetxe, Maddalen Arzallus eta Xumai Murua.

Lehen bi ariketetan ofizioka ariko dira binaka, hiruna bertso botaz, 8ko handian lehenengo eta 8ko txikian gero. Banakakoan 3 punturi erantzun beharko diote segidan eta, azkenik, 10eko txikian binaka jardun eta gero, bakarkoan gai bera emanda hiruna bertso bota beharko dituzte bertsolariek, doinu eta neurri librean. Ariketa horietan puntu gehien lortu duten bi bertsolariak buruz burukoan ariko dira, 6ko motzean lehendabizi eta 8ko txikian gero.

Hortik aterako da Xilabako txapelduna. Jean Pierre Treku "Panpili" Martin Treku bertsolariaren semeak jantziko dio txapela irabazleari. Horrekin batera,

beste sari bat emango dugu finalean, Txato saria; kantaera aberatsena erabiltzen duen bertsolariari emango zaio. Sari hau Aitor Renteria "Txato" zenaren omenez jarri zen martxan 2014ko edizioan.

Finalaren aurretik eta ondoren, Lauga gelan ostatua izango da Etxepare Lizeoko guraso taldeak antolatuta. Eta finalaren ostean, besta egingo da Zizpa gaztetxean, 22:00etatik aurrera.

Ohi bezala, finalerako sarrerak [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian eros daitezke aurrez. Egun berean Lauga gelan erosteko aukera izango da.

### Bizkaian, finalaurrekoetan

Urriaren 15ean jarri zen martxan Bizkaiko Bertsolari Txapelketako udagoieneko fasea. Kanporaketak jokatu ostean, finalaurrekoen txanda ailegatu da hurrengo asteotan.

Hiru finalaurreko jokatu dira: Markina-Xemein (azaroak 19), Basauri (azaroak 27) eta Larrabetzu (abenduko 3). Finalaurrekoetan kanporaketetatik sailkatu diren bertsolariei azken txapelketan finalista izateagatik zuzenean sailkatuta zeudenak batuko zaizkie: Jone Uria, Oihana Bartra, Onintza Enbeita, Xabat Gallettebeitia eta Etxahun Lekue.

Bizkaiko Bertsolari Txapelketari buruzko informazio osoa [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) webgunearen barruan dagoen atal berezian aurkituko duzue. Saioetarako sarrerak, berriz, [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian daude salgai.



**MAIALEN  
LUJANBIO ZUGASTI**  
lurreta, 2016-X-01

**Gaia: Ran Rober Ran**  
**Doinua: Lurrapen pean**

Aste honetan joan da eta bertsotan nola ez aipa gure Imanol Urbietaren zena hainbeste kanturen aita! Historiak luze jarraituko du bere doinuei jarraika jolaserako ta pozerako sortu zituen hamaika haurrek euskaraz kantatu ezean herri euskaldunik ez baita. (bis)

Gaztelerazko kantutegian nahiz eta bazen aukera kantatu euskaraz ein genulako orain euskaldunak gera eta doinua ez da doinu huts begiratuta barnera kantuen bidez eraman gaitu gu mundua ikustera eta kantuok barruan zuten bere mundu ikuskera. (bis)

Baina normala da bizitza bat urteekin agortzea ta tokatzen da merezi zuna Imanoli aitortzea euskalgintzan ez erlajatzea ta bidea gogortzea eta umeei transmititzea lehengoa gogoratzea gogoratzea lehengoa eta kantu berriak sortzea. (bis)



Duela bi urte bezala Baionako Lauga jokatu da finala. //XDZ

F.C.BAIMEA: 37/126

ISSN 1138-4530

L.G. 55-614/97

Erredikzioa: Bertsozale Elkarte / Diseinua-maketazioa: Lanku / Argazkiak: Xepelar Dokumentazio Zentrua  
Tel.: (0034) 943 694129 / e-posta: komunikazioa@bertsozale.eus

# Lau nobedade aurkeztuko ditugu Durangoko Azokan

Ohi bezala bertsoaritzak izango du bere tokia Landako Gunean, Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen eta Lanku Kultur Zerbitzuen eskutik. Ekoizpen berriak, berrargitalpenak eta bertsoaritzari loturiko materiala izango dira eskura Goienkaleko 41.ean, eta baita emanaldi ugari ere azokako gunetan.

Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak eta Lanku Kultur Zerbitzuak enpresak bertsoaritzarekin lotutako materiala eramango dugu aurtengoan ere Durangoko Azokara. 2015eko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako liburua, *Hiztegi errimatuaren* berrargitalpena, *Jasota bezala* bertso antologiaren hirugarren alea eta *Mundu bat ahoz aho* dokumentala izango dira aurtengo nobedadeak.

**Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa 2015** liburua eta CDa. Gipuzkoako Txapelketako fase ezberdinetako bertsoen hautaketa zabala jaso da. Txapelketan parte hartu zuten bertsolari guztien bertsoak ageri dira eta finala oso-osorik aurki daiteke. Liburuan dauden bertso guztiak daude audio formatuan.



Bertsoaritzarekin lotutako materiala aurkituko duzue gure postuan.//XDZ

Xabier Amurizaren **Hiztegi Errimatua. Hitzaren Kirol Nazionala**. Bertsoaritzan oso erreferentea den liburua da, aspaldi agortu zena. Bertsolari zein bertsozale askok eskatzen duten produktua izanik, berriro argitaratuko dugu eta Durangoko Azokan izango da eskuragarri. 3. edizio honi Andoni Egañak egingo dio hitzaurrea eta azalaren aldetik ere itxura berrituta etorriko da.

Diskoen atalean, **Jasota bezala** bertso antologiaren bilduman, Xabier Amurizaren bertsoaritzari egingo zaio lekua, bat-bateko bertsoaritzari uzteko erabakia hartu baitu aurtengo maiatzean. Xabier Amurizaren bertsoaritzari jantzitako CD bikoitza aterako da, CD batean plazan egindako bertsoak jasoko dira eta bestean, txapelketetan jarritakoak.

**Mundu bat ahoz aho** dokumentala jasotzen duen DVDa ere Durangon izango dugu. Euskal Herrian ez ezik munduan zehar hainbat kulturatan errotuta dago inprobisazio kantatua eta horiek gertuagotik ezagutzeko parada eskainiko digun munduko kantu inprobisatuari buruzko dokumentala jasotzen da DVD honetan. Mintzola Ahozko Lantegiak garatu eta Lankuk ekoitzi du dokumentala.

Lau berrikuntza hauez gain, bertsoaritzarekin lotutako material gehiago izango dugu gure mahaian; bestalde, Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalerako sarrerak ere izango dira eskuragai. Bertsozale Elkarteak bazkideek deskontua izango dute salgai ditugun produktuetan. Goienkaleko 41.ean topatuko gaituzue!

## Bertsoaritzarekin lotutako Durangoko ekitaldiak

Gainera, Durangoko Azokaren baitan dauden hainbat gunetan emanaldi eta aurkezpenak eskainiko ditugu.

### Irdiarena

#### Abenduaren 3an

11:30 *Mundu bat ahoz aho* dokumentalaren proiektzioa.

12:30 Mahai-ingurua:

*Bertsoaren aukerak eta ezinak ikus-entzunezkoetan.*

13:00 *Mugaminak* dokumentalaren proiektzioa.

### Ahotsena

#### Abenduaren 4an

11:30 *Oholtza* performancea. Beñat Krolem, Jone Uria eta Jon Martin.

### Abenduaren 5ean

17:00 *Testurak* emanaldia. Ane Labaka, Malen Amenabar, Nerea Elustondo eta Oihana Bartra.

### Areto Nagusia

#### Abenduaren 6an

11:00 *Hiztegi Errimatua. Hitzaren Kirol Nazionala* berrargitalpenaren aurkezpena, Xabier Amurizaren eskutik.

### Sagunganbara

#### Abenduaren 6an

11:30 *Kutzaka*. Ipuina eta marrazkia.

# Material berriarekin abiatu dugu ikasturtea Euskal Herri osoko ikastetxeetan

**Hezkuntza arautuko proiektuak sendo hasi du ikasturte berria. 400 ikastetxetako 25.000 ikasle inguruk izango dute hurrengo hilabeteotan bertsoaritzara hurbiltzeko aukera. Nobedade handi batekin etorri da kurtso berria *Mundu bat bertso* ikasmateriala estreinatu baitute irakasle eta ikasleek.**

Aurten ere Euskal Herrian zehar barreiatu bertsosale elkarten bidez lurralde guztietara iritsiko da bertsoaritzaren hezkuntza arautura. 400 ikastetxe baino gehiagotan landuko da 2016-17 ikasturtean ahozko kantu inprobisatua; osotara 25.000 ikasle inguruk jasoko dute. Horretarako, irakasle lanetan dabilzan bertsolariak ikasgelaz ikasgela ibiliko dira *Gu ere bertsoan* egitasmoa duten ikastetxeetan.

Ikasturte honetarako, bizkar-zorroan material berria dakar bertsoaritzak. Bertsozale Elkarteak irakasleen ekarpenekin

osatuta, liburu berria argitaratu dugu: *Mundu bat bertso* argitalpena. Mirari Sagarzazu ilustratzaile eta bertsolariak egin ditu irudiak eta Lankuk argitaratu du Euskal Herriko eskoletan erabiltzen ari den ikasmateriala.

Jakina denez, gaztetxoek zuzendutako eskaintza ez da hezkuntza arautura mugatzen; herri eta auzoetan martxan dira jada bertso-eskolak, eta horietan aukera paregabea dute eskolaz kanpo trebatzeko. Horien berri zehatza izateko [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) webgunera jo dezakezue.

## Hiru proiektu sari eta bi ikerketa kontratu esleitu ditugu

**Ekainean zabaldu zen deialdian eskainitako hiru proiektu sariak eta bi ikerketa kontratuak esleitu dituzte Mintzola Ahozko Lantegiak, UPV/EHUko Laboa Katedrak eta UPV/EHUko Euskara eta Ikerkuntza Errektoreordetzek. Aurkeztu dituzten lanen mailarekin pozik agertu da epaimahaia. Azaroaren 10ean doktore tesiak aurkezteko ekitaldia egingo dugu Amasa-Villabonan.**

Mintzola Ahozko Lantegiak eta UPV/EHUko Laboa Katedrak hiru proiektu sari esleitu dituzte. Horrekin batera, bi erakundeek UPV/EHUko Euskara eta Ikerkuntza Errektoreordetzekin batera eskainitako ikerketa kontratuak ere banatu dituzte.

Sei lan jaso dira ikerketa kontratuarentzat. Oihana Iguaranek eta Ainhoa Aizpuruak eskuratu dituzte bi ikerketa kontratuak: lehenak, Bertsoaren Agenda. *Agenda settingak bertsoaritzaren diskurtsoan duen eragina* lana osatzeko eskaria aurkeztu du eta bigarrenak *Bertsoaritzaren prosodia*. Aizpuruak beste sari bat ere jaso berri du Laboa Katedraren eskutik, eta honenbestez, deialdi honetan jasotakoari uko egin dio. Hala, Eñaut Agirrek erdietsi du kontratua *Ahozko hizkeraren ezaugarriak bertsolarien bat-bateko jardunen* lanarekin. Urtebetean garatu ahal izango dute proiektua, baina hiru urte gehiago luzatzeko aukera izango dute.


Proiektu sariari dagokionez, Ane Labakak, Itziar Navarrok eta Xumai Muruak eskuratu dituzte: *Bertsoaritzan garatutako umorea(k)*, genero ikuspegitik; *Oiartzungo bertsolarien kantaera: analisi musikologiko konparatiboa*; eta, *Gorputz Heziketako aktibitateen didaktika bertsoaritzaren didaktikaren zerbitzuan* lanak osatuko dituzte, hurrenez hurren. 2.000 euroko saria jasoko dute beren lana osatzeko.

Ikerketa kontratuak eskaintzen diren laugarren aldia izan da honakoa eta hirugarrena, proiektu sariena. Lanen mailarekin gustura agertu da epaimahaia. Horrez gain, bata bestearentzat osagarri direla nabarmendu da aurtengo deialdian; proiektu

sarien deialdia kontratuen deialdiarentzat onuragarri gertatu da, beste zenbait urtetan sarietarako pausoa eman zutenek kontratura aurkezteko urratsa egin baitute.

### Tesiak ezagutzeko ekitaldia

Dagoeneko lau dira bertsoaritzari buruz abian diren doktore tesiak. Horien berri emateko eta bertsoaritzari ikertzen ari direnen arteko harremanetan eragiteko ekitaldia antolatu du Mintzola Ahozko Lantegiak Amasa-Villabonako Subijana etxean. Azaroaren 10ean izango da, 18:30ean, eta ekitaldia irekia eta doakoa izango da. Bertan Miren Artetxek, Oihana Iguaranek, Eñaut Agirrek eta Ainhoa Aizpuruak beren lanen berri emango dute, laburrean. Ekitaldia amaitzeko bertso zaharren emanaldi bat eta libreko saio bat izango dira. Ekitaldiaren inguruko informazio zehatza [www.mintzola.eus](http://www.mintzola.eus) webgunean aurkituko duzue.



Lau dira bertsoaritzari buruz abian diren doktore tesiak.//XDZ



## Puntu jarrita

**EUXEBIO IGARTZABAL ALUSTIZA**

### Gu ere gazteak izan ginen

Gaztetan, normala den bezala, kezka edo geldi egon ezin pixka bat ere izan genuen. Herri gaztedi eta horrelako mugimenduen inguruan zerbaít mugitzen ginen eta ikusten hasi ginena izan zen bertsolari berririk ez zela sortzen edo azaltzen.

Bertsolaritza gustatzen zitzaigunez bertsolari berriak behar zirela uste genuen eta hala moduz pentsatzen genuen taldetxo bat sortu genuen Gabiri inguruan: Migel Agirre, Joxe Mari Landa, Luzio Gabiria eta ni neu.

Landa apaiz ikasten egondakoa zenez, Joan Mari Lekuona ezagutzen zuen eta harengana joan ginen gure asmo edo kezka azaldu eta elkarrizketa bat eduki asmoz, eta berak ere poz hartu zuela ematen zuen guk esanak entzunda. Orduan hasi ginen hitzaldi eta bertso saio batzuk eratzten.

Gure asmoen berri eman genienean Florentino Goiburua eta Patxi Iraolari, onarpena eman ziguten eta haiek ere gure taldean ikustea izugarria izan zen guretzat. Horrela hasi ginen Goierri aldean bertso sariketa batzuk eratzten eta, batez ere, Osinalde saria.

Lehenengo urteetan nahiko lan izaten zen sei bertsolari inguratzen. Lege gisara jarri genuen behin irabazten zuenak berriz parte hartzerik ez zuela eta ez zen aukera handirik izaten, baina gero bertso eskolak sortzen hasi zirenean, guztiei aukera emateko lekuri ez eta orain hemezortzirekin ematen zaio hasiera.

Ordiziako Argi Berrin, Zaldibiako Osinberden eta Aztiriako Aztiri Bat elkarteetan jokatzeko dira. Saio bakoitza sei bertsolariarekin eta bi aukeratzen dira bakoitzetik finalerako. Horrela hiru saiotako binarekin jokatzeko da finala Gabiriako Osinalde elkartearen.

Sariketa hau elkartearen artean moldatzen dugula esan daiteke eta elkarte bakoitzak eratzten du bere sariketa, lan eta epaitzeko erak autonomo eginez. Inbitazio egiten dugunez, saiatzen gara zazpi herrialdeetako bertsolariak aukerak ematen eta ahal bada hiru bat urtetan parte hartzeko modua egiten, nahiz eta beti ez den erraza izaten. Ahalegina egiten dugu lanak ondo burutzen eta jendea pozik uzten.

Horrela nolabaít dijoa gure bertsolari sariketa ingurua. Orain jakingo nuke pozik nola ikusten duten bertsolari gazteek bertsolaritza, sariketa, saio, eta abar. Hori esan dezakeena Jon Gurrutxaga azpeitiarra dela esango nuke. Zer diok, Gurrur?

# Koplak

## Nafarroako eta Xilabako bertsolari gazteen topaketa

Nafarroako Bertsozale Elkarteak, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuarekin elkarlanean, Nafarroako eta Xiberoa, Lapurdi eta Baxenabarreko bertsolari gazteen topaketa antolatu du lehen aldiz. Topaketa azaroaren 5ean eta 6an egin zen, Doneztebeko Belbieretxea aterpetxean. Bertan 14 eta 17 urte bitarteko 25 gaztek hartu zuten parte: 14 Nafarroako bertso-eskoletakoek eta 11 Xilabakoetakoek.

# Poto-Finixa



Babeslekurik seguruenaren omen

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

## 2017ko Arabako Bertsolari Txapelketarako kanporaketak

2017ko urtarrilean aurkeztuko den Arabako Bertsolari Txapelketan 18 bertsolari hartuko dute parte. 29 bertsolari eman zuten izena, beraz urtariletik aurrera zeintzuk kantatuko duten erabakitzeko lau kanporaketa jokatu dituzte urriaren 28tik azaroaren 5era. Kanporaketetatik 13 bertsolari sailkatu dira, 2015eko bost finalista jada sailkatuta baitzeuden.

<p>Kontratazioak eta informazio gehiago:</p> <p><b>Lanku</b> www.lanku.eus 943 26 07 55</p>	<p><b>TES TU RAK</b></p> <p>TESTOIA: TESTOIA ZABALETIK: ESTURA</p> <p>LITERATURA TESTUETIK ABARITUTAKO BERTSO SAIOA</p>	<p><b>OHOLTZA</b></p> <p>BENAT KROLEM</p>	<p><b>PETRESKU ETZI EZ ETSI!</b></p>
---	---	---	--------------------------------------

PUBLIZITATEA